

# **DEMIKU AUZOKO TOSTADA TXAPELKETA**

## **MODALIDADEA: AHIEZKOAK**

1- **XEDEA**: 2025eko Demiku auzoko jaietan, otsailaren 2an, igandea, tostada txapelketa antolatuko da.

Txapelketan modalitate bakarra dago: ahiezko tostadak. Txapelketa Demiku auzoan burutuko da, ermitaren alboan.

2- **PARTAIDEAK**: Txapelketa honetan edonork parte hartu dezake.

3- **IZEN-EMATEA**: 2025eko otsailaren 2an, eguerdiko 13:45ean izango da.

### **4- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK:**

1.- Osagai hauek onartuko dira: gurina, olioia, irina, azukrea, esnea, arraultzak, kanela, limoia edo laranja azala. Besterik ez da onartuko.

2.- Hiru tostada aurkeztu behar dira.

3.- Kartoizko platerean aurkeztu behar dira.

4.- Tostadak aurkezterakoan, parte-hartzailearen izena eman beharko da. Partaideak Demiku auzokoa den ala ez azalduko du.

5.- Txapelketea amaituta, tostada guztiak ikusleen artean dastatuko dira.

### **5- SARIAK:**

Tostada txapelketaren sariak hauek izango dira:

1. **saria**: 60 €-ko otzara bete produktu

2. **saria**: 40 €-ko otzara bete produktu

3. **saria**: 20 €-ko otzara bete produktu.

**Demikuko auzotar batentzako sari berezia**: 40 €-ko otzara

### **6- TOSTADA TXAPELKETAKO IRABAZLEEN AUKERAKETA:**

1.- Epaimahaia herriko sukaldari batek, Demikuko jaien antolatzaileek eta Udaleko zinegotziek osotuko dute.

2.- Epaimahaiak tostadak dastatuko dauz, eguerdiko 14:00tik aurrera.

3.- Sari banaketea ondoren izango da Demiku auzoan, ermita alboan.

4.- Udaleko webgunean eta sare sozialetan emongo dira jakitera irabazleen izenak.

5.- Epaimahaiaren erabagia apelaezina izango da.

### **7- EPAIMAHAIAREN BALORAZIOA:**

Epaimahaiak hauxe hartuko du kontuan:



- 1.- Tostaden itxura eta zaporea.
- 2.- Tostadak egiterakoan, osagaien erabilera egokia.

**8- OHARRA:** Partaideek izena ematerakoan, oinarrien araukin bat datozela adierazten dute.

